

Ile-apaindegian

Bezerao : Egun on, jauna (edo anderea)

Ile-apaintzailea : Bai, zuri ere ! Tenorean ttanko heldu zirela, zu !

Bezerao : Bazeneki zein asean naizen ile hauetaz !

Ile-apaintzailea : Zer dute, ba ? Zer duzu arrangura ?

Bezerao : Ez duzu ikusten ? Alde guzietara abian zaizkit eta ez ditut gehiago gobernatzen ahal !

Ile-apaintzailea : Zaude gustuan ! Lehenik xanpu on batekin goxatuko dizkizut eta gero punta idor horiek moztuko. Ikusiko duzu nola menderatuko ditugun.

Bezerao : Bai, baina kasu ! Bazterretan gibelean baino luzexeago nahi ditut.

Ile-apaintzailea : Nahi duzun bezain luze utziko dizkizut. Egin ahala ontsa eta azken modan ezarriko dizkizut.

Bezerao : Entzun duzuia zer istripu larria gertatu den Baionako bidean ?

Ile-apaintzailea : Bai ! Zuraideko bi gazte omen ziren !

Bezerao : Lerratu omen dira arroilan sartu aitzin. Gaixoak ! Ospitalean omen dira biak arrunt kinka txarrean !

Ile-apaintzailea : Hara ! (Miraila hartzen du eta gibelaldea erakusten dio) Satifos zarea ?

Bezerao : Arrunt kausitu didazu ! Hori nuen amesten ! Zer aitzur-ukaldi ona duzun ! Milesker. Zenbat zor dizut ?

Ile-apaintzailea : 25 euro.

Bezerao : Horra 30 eta denak atxik ! Lan onak ordain ona merezi du ! Ondoko egunak arte.

Ile-apaintzailea : Milesker eta ez adiorik !

Jokalariak : Ile-apaintzailea eta bezerao
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti